

SUPER BANANA ESPLORATZAILEA

Gaur egun, Zakarrontzi batean platano berezi bat bizi zen. Platanoak ez zekien super botereak zituela.


Baina egun baten paseatzera irten zen. Bat batean kamioi batek harrapatu behar zuenean, hegara irten zen!!!

Orduan, SUPER BANANA izena jarri zion beraren buruari. Hainbeste gustatzen zitzaion hegan egitea heritik hegan eta hegan ibiltzen zen.



Orduan, beste planeta batera heldu zen. Planeta: txuria, krater arrosak, 1.000.000 puntu beltz eta puntu hori erraldoi bat zuen.

Baina, Super banana bere ausardiarekin planetara joan zen. Orduan planetara heldu zenean, ikusi zuen horko herritar denak esklaboak zirela, euren erregea ikusi eta beregana joan zen. Han esan zion:



- Zergatik tratatzen duzu jendea horrela?-
- Zuri ez zaizu axola - erantzun zion erregeak
- Artaburu halakoa- esan zion Super Bananak.

Eta orduan monstru errege Gaistolinen kontra borrokan hasi zen.

Orduan Super Banana bere eraso bereziak egin zituen: Monstruak ukabilkada bat jotzera joan zen, baina Super Bananak, banana irristakorra egin zion

eta munstroa lurrera erori zen.

Orduan Super Bananak barre egin zuen. Eta gainera esan zion:

- USTEL HORI IKUSIKO DUZU!!!- eta BANA BANA BANANA!!! erazoa egin zion Gaiztolinei.



Momentu horretan Gaiztolinek bandera txuria atera zuen.

Orduan Super Bananak ostiko batez planetatik bota zuen eta bakea lortu zuen.

Orduan herritar guztiek festa handi bat egin zuten Super Bananarentzat, eta Super Banana oroitzeko. Super Banana izendatu zuten euren errege berria.

Eta Super Bananak asko eskertu zuen. Orain euren planetan oso gustura bizi izan ziren.

Ala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila planeta horretako plazan.